


TOPA GAITZAZU


INTERESEKOA



Helbidea
Andre Maria Sortzez Garbia Katedral Berria
Cadena y Eleta, z/g
01008 Vitoria-Gasteiz


@ museoartesacro@euskalnet.net

☎ 945 15 06 31


 **Hezkuntza jarduerak**
Museoak artea jende guztiari hurbiltzeko jarduerak garatzen ditu:

- Ibilbide bereziak eta bisita-tailerrak eskolako haurrentzat eta helduentzat
- Adintsuentzako bisita interaktiboak
- Partikularrentzako bisita komentatuak

Erreserbak: 945 150631

 **Informazio zerbitzua eta kontsulta espezializatuak**
Bildumaren artelanei eta elizbarrutiko ondare artistikoari buruzko ikertzaileen eta jende guztiaren kontsultak erantzungo dira.

 Ezgaitasuna duten pertsonentzako **sarbide eta zerbitzuak**

 **Ordutegia**
Asteartetik ostiralera: 11:00-14:00 eta 16:00-18:30
Larunbatak, igandeak eta jaiegunak: 11:00-14:00
Astelehenak itxita

€ **Tarifak**
OROKORRA 3 €
TALDEKAKOA (>10 pertsona) 2 €
MURRIZTUA 12-18 urte bitartekoak, 65 urtetik gorakoak, langabeak eta ikasleak 1 €
DOAKOIA 12 urtetik beherakoak, irakasleak eta hileko lehenengo larunbatak

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA
Vitoria - Gasteiz



MUSEOA: SAILAK HARRIA ENBORRA LITURGIA TAULA MIHISEA ZILARRA

MUSEOA... BARRUALDEtik



HARRIA


ENBORRA

LITURGIA

TAULA

MIHISEA

ZILARRA



Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa

Gure iraganarekin eta bere forma artistikoekin aurkitzeko lekua.

1999an ireki zen eta bere eginkizuna Arabako ondare erlijiosoa babestea, zaintzea, aztertzea eta zabaltzea da. Bertako artelanak Arabako Foru Aldunditik, Gasteizko Gotzaindegitik eta elizbarrutiko elizetatik jasoak dira dohaintza, gordailu eta erosketen bidez.

Katedral Berria

Espiritualtasuna eta museologia elkartzen diren tokia.

Eraikin neogotikoa da; 1907an hasi zen eraikitzen eta 1969an kotsakratu zen. Barrualdea zabala eta gardena da eta garaiera handiko bost nabe ditu. Nabe horiek Maumejean etxeko beirate bikainek argitzen dituzte.



JAIOTZA NAPOLITARRA

Aparteko artelan multzo honek eszena sakratu bat irudikatzen du eta xehetasun handiz egindako 56 piezek osatzen dute. Bertan, XVIII. mendeko Napoliko eguneroko bizitza ikusten da, modu errealistan adierazita.

1 HARRIA Prerromanikoa eta Erromanikoa

Lehen kristauen aztarnak eta eliza erromanikoetan landutako eskultura. V-XIII. mendeak.

Eliza primitiboen ondoan egindako ehorzketen eta antzinako errituen adierazgarri dira hemen ikus daitezkeen hilobi, estela eta aldareak. Tenpluak apaintzeko eta fededunei irakasteko erabiltzen ziren kapitelak, leihateak, mentsulak eta harburuak ere badaude.

2 ENBORRA Gotikoa

Egurrean landutako irudi gotikoak, fededunek gurtu egin dituztenak belanez belan. XIV-XV. mendeak.

Zuhaitz enborretatik ateratako Andra Mari, Kristo, eta santuen eskulturak aurkitzen ditugu. Eskultura hauek urrezko eta kolore biziko polikromia daukate. Erdi Aroko pentsamendua eta sinesmenak erakusten dituzte.

Halaber, ohol gaineko pintura ikus daiteke.

3 LITURGIA

Marmolez egindako aldare neogotiko batean objektu liturgikoak jarri dira hauen erabilera eta eginkizunaren arabera, asmo didaktikoarekin: erlijio esparru baten irudikapena.

XVI-XVIII. mendeetako zilargintza eta beztidura sakratuak erakusten dira; hauek belusarekin, urrearekin eta zetekin eginda daude.

4 TAULA Errenazimendua

Flandestik heldutako pintura errenazentista eta erretauletan garatutako bertoko artelanak. XVI. mendea.

Flandriako artelanak erabilera pribatuko luxuzko objektuak ziren: triptiko multzo bat, Hamaika Mila Birjinen erlikitegi bustoak eta Malinaseko zenbait *poupée*. Fontechako erretaulara, Labrazako taulak, Juan de Anchietaren erliebeak eta beste eskultura batzuk gure inguruetako erretaulagintzaren erakusgarri onak dira.

5 MIHISEA Barrokoa

Artista barroko nabarmengarrienetako batzuek pintaturiko oihal handiak. XVII-XVIII. mendeak.

El Greco, José de Ribera, Luca Giordano, Gaspar de Crayer, Alonso Cano, Juan Carreño de Miranda... eta beste askoren artelanak ikus daitezke.

Nazioarteko pintura hau Elizan edo Gortean goi karguak izan zituzten Arabako aberatsen dohaintzen bidez iristen zen elizetara.

6 ZILARRA

Xehetasun handiz metal nobletan landutako liturgiarako objektuak. XIII-XX. mendeak.

Prozesioko gurutzeak, ekisainduak, kopoiak, kalizak, patenak, pixideak, krismaontziak, nabetak, erlikitegiak... Mendeetan zehar erabili izan dira mezatan, baina gaur egun ez dira asko eramaten parrokiatar.

Gehienak zilarrezkoak egin ziren, baina urrea, kobrea edo brontzea ere erabili ziren.